ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2021eko abenduaren 27a, astelehena • 145 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

# OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**773/2021 Foru Agindua, abenduaren 20koa, onesten duena ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren 296. eredua: establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak eta atxikipenen eta konturako diru sarreren urteko aitorpena**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren urtarrilaren 20ko 13/2009 Foru Aginduaren bidez honako bi eredu hauek onartu ziren: 216 eredua (Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe eskuratutako errentak. Atxikipenak eta kontura egindako sarrerak. Aitorpen-sarrera agiria) eta 296 eredua (Ez-egoiliarren errentaren gaineko Zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Atxikipenen eta konturako sarreren urteko aitorpena).

Geroago, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren abuztuaren 1eko 448/2016 Foru Aginduaren bidez 216 eredua onartu zen (Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Atxikipenak eta konturako diru sarrerak. Autolikidazioa), eta indarrik gabe utzi zen urtarrilaren 20ko 13/2009 Foru Aginduak horretaz ezarritako erregulazioa.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Arautegia Arabako Foru Aldundiaren urtarrilaren 12ko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez onartu zen (dekretu horrek Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ekainaren 18ko 21/2014 Foru Araua garatzen du). Arautegi horrek ezartzen du ez-egoiliarren errenten gaineko zergaren zergadunek establezimendu iraunkorrik eduki gabe jasotzen dituzten zerga horren kargapeko errentei atxikipenak eta konturako sarrerak aplikatuko behar zaizkiela zergaren foru arauak 31. artikuluan ezartzen duen bezala, eta errenta horiek nola kalkulatu behar diren azaltzen du eta zergadunek dituzten betebehar formalen berri ematen du.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren foru arauan eta arautegian egin diren aldaketak eta erreforma horren ondoriozko informazio beharrizan berriak direla-eta, ezinbestekoa da gai honen inguruko arau erreferentziak eguneratzea, eta eredu egokian egin beharreko aldaketa tekniko nagusiak txertatzea.

Horrekin bat etorriz, beharrezko egokitzapenak egin behar dira aitorpen informatiboaren eredu honen diseinu fisikoetan eta logikoetan.

Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Ogasunari aitorpenak eta autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko baldintza orokorrak onartu ziren, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren azaroaren 20ko 603/2020 Foru Aginduaren bidez zergapeko pertsona eta entitate jakin batzuek zerga eredu eta eskaerak modu telematikoan, internet bidez, aurkezteko baldintza orokorrak ezarri ziren.

Azaldutako arrazoiengatik bidezkoa da foru agindu bat onartzea urteko aitorpenaren 296 eredua arautzeko, bai eta eredu horren ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko fitxategien diseinu fisikoak eta logikoak ere.

Horrenbestez, foru agindu honen bidez 296 eredu berria onartzen da, bai eta eredu horren ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko fitxategien diseinu fisikoak eta logikoak ere.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak egin duen txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehena. 296 eredua onartzea.

296 eredua onartzen da: Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Atxikipenen eta konturako sarreren urteko aitorpena. Foru agindu honen I. eranskinean dago.

Bigarrena. 296 ereduaren fitxategien diseinu fisikoak eta logikoak onartzea.

Foru arau honen II. eranskinean zehazten diren diseinu fisikoak eta logikoak onartzen dira, hain zuzen ere 296 ereduan eman beharreko informazioa biltzen duten fitxategiek eduki beharrezkoak.

Hirugarrena. Urteko aitorpenaren 296 eredua aurkeztu behar duten subjektu pasiboak.

1. 296 eredua (urteko aitorpena) honako hauek aurkeztu behar dute: atxikipena edo konturako sarrera egin behar duten subjektuek, urtarrilaren 12ko 3/2016 Foru Dekretuko 15. artikuluan aipatzen direnek. Horretatik salbu daude inbertsio kolektiboko entitateen kapitala edo ondarea ordezkatzen duten akzioak edo partaidetzak eskualdatzen edo itzultzen direnean atxikipena eta konturako sarrera egin behar duten subjektuak, berariazko aitorpen eredua baitute.

2. Urtarrilaren 12ko 3/2016 Foru Dekretuak 19. artikuluaren 2. apartatuan ezartzen duenaren arabera, urteko laburpena aurkeztu behar dute, halaber, Espainian egoitza edo ordezkaritza duten entitateek, baldin eta besteren kontura ordaintzen badituzte atxikipenak eta konturako sarrerak jasan beharreko errentak edo baloreen errentak gordailatzen badituzte edo haien kobrantza kudeatzen badute.

Laugarrena. Hartzaileen zerrendaren edukia.

Urtarrilaren 12ko 3/2016 Foru Dekretuaren 19. artikuluaren 2. apartatuan ezartzen den hartzaileen zerrenda egiteko fitxategiaren erregistro egokiak erabili behar dira.

Atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituzten aitortzaileen kasuan, zerrendan zergaren kargapeko errentak hartu dituztenen datuak agertu behar dira. Errenta hauek dira, hain zuzen: aitortzaileek ordaindutako errentak, atxikipenak edo konturako sarrerak eragin dituztenak, edota atxikipenik edo konturako sarrerarik egin beharrik izan ez eta atxikipenen aitorpen negatiboa aurkeztu beharra dakarten errentak.

Urteko laburpenean ez dira sartu behar atxikipenen aitorpen negatiboa aurkeztu beharretik salbuetsitako errentak hartu dituztenak; errenta horiek honako hauek dira:

1. Pertsona fisikoek jasotzen dituzten errenta salbuetsi hauek: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautu eta sozietateen gaineko zergari, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari eta ondarearen gaineko zergari buruzko legeak partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legeko 7. artikuluan aipatzen direnak.

2. Egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo entitateek establezimendu iraunkorrik gabe Espainian jaulkitako baloreek sortutako errentak, kontuan hartu gabe non dagoen dena delako ordainketan agente gisa diharduen edo baloreen jaulkipenean edo eskualdaketan bitartekari gisa aritzen den finantza entitatearen egoitza.

3. Ez-egoiliarren kontuen etekinak, hain zuzen ere zerga honen zergadunei ordaintzen zaizkienak. Honelako etekinak Espainiako Bankuak edo atzerriko transakzio ekonomikoei buruzko arautegian aipatzen diren entitate erregistratuetako batek establezimendu iraunkor bati ordaintzen badizkio, ez daude salbuetsita.

4. Estatuaren eta autonomia erkidegoen idazpenetako zorraren interesak, ordaintzeko edo atxikipenak itzultzeko prozedura berezia aplikatzen zaienak.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

5. Ez atxikipenik ez konturako sarrerarik aplikatu behar ez zaien errentak, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Arautegiaren 14. artikuluaren 3. apartatuan aipatzen direnak (arautegi hori urtarrilaren 12ko 3/2016 Foru Dekretuak onartzen du).

6. Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren hamalaugarren xedapen gehigarriaren 4.c) puntuan aipatzen diren errentak.

Halaber, Espainian egoitza edo ordezkaritza duten entitateek besteren kontura ordaintzen badituzte atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu behar zaizkien errentak, edo baloreen errentak gordailatuta badituzte edo haien kobrantza kudeatzen badute, hartzaileen zerrendan besteren kontura ordaintzaile edo errenten ordainketaren gordailuzain nahiz kudeatzaile izan direnen datuak adierazi behar dituzte.

Bosgarrena. 296 eredua aurkezteko prozedura.

Urriaren 6ko 32/2020 Foru Dekretuak eta azaroaren 20ko 603/2020 Foru Aginduak ezartzen dutenaren arabera 296 eredua telematikoki aurkeztu behar da nahitaez.

296 eredua telematikoki "profesional" baten bidez aurkezteko, urriaren 6ko 32/2020 Foru Dekretuak 3. artikuluaren 2. apartatuan ezartzen duena bete behar da.

Zergapekoak edo beraren borondatezko ordezkariak 296 eredua modu telematikoan aurkezteko, urriaren 6ko 32/2020 Foru Dekretuak 3. artikuluaren 2. apartatuan ezartzen dituen prozedura arauak bete behar dira.

Seigarrena. 296 eredua aurkezteko epealdia.

Urte batean atxikitako eta kontura sartutako kopuruen laburpenaren aitorpen informatiboa (296 eredua) hurrengo urteko urtarrilean aurkeztu behar da, ekitaldi bakoitzeko zerga egutegian ezarritako daten arabera.

Zazpigarrena. Dokumentazioa.

Bat. Urteko laburpena aurkeztu behar dutenek Zerga Administrazioaren eskura eduki behar dute egindako atxikipenak frogatzen dituen dokumentazioa Arabako arauei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 65. artikuluan aipatzen duen preskripzio aldian.

Horri dagokionez, Espainiako arautegiko salbuespenak aplikatuz atxikipenik egin ez bada, zergadunaren egoitza non dagoen kontuan hartuta, egoitza dagoen estatuko zerga agintaritzak emandako egoitza ziurtagiria aurkeztu behar da frogagiri modura.

Espainiak zergapetze bikoitzaren aurka sinatutako hitzarmen bateko xedapenak aplikatuz atxikipenik egin ez bada, edo bertan ezarritako mugekin egin bada, zerga agintaritza egokiak emandako zerga egoitzaren ziurtagiria aurkeztu behar da horretarako eskubidea frogatzeko, eta bertan zergaduna egoiliarra dela agertu behar da, hitzarmenean zehaztuta dagoen bezala.

Hala ere, formulario zehatz baten erabilera xedatzen duen agindu baten bidez garatutako hitzarmen batean finkatutako ezarpen muga aplikatuz egin bada atxikipena, ziurtagiria gabe formularioa bera aurkeztu behar da frogagiri gisa.

Aurreko paragrafoetan aipatzen diren ziurtagirien balioaldia urtebetekoa izango da ematen direnetik.

Zerga ordainduta dagoela-eta atxikipenik egin ez bada, errentari dagokion zergaren aitorpena, zergadunak edo haren ordezkariak aurkeztutakoa, erabili behar da hori frogatzeko.

Bi. Jabetza intelektualaren eskubideen kudeaketa kolektiborako baimena duten entitateei eskatzen zaien dokumentazioa eta Espainiako inbertsio kolektiboko entitateen akzioak edo partaidetzak mugaz haraindi merkaturatuz gero eskatzen dena aurkezteko, azaroaren 6ko EHA/3290/2008 Aginduan ezartzen dena bete behar da.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Zortzigarrena. Errentak sortu dituen ondare elementu, ondasun edo eskubide batek titular hartzaile bat baino gehiago edukiz gero, 296 ereduan eman beharreko informazioari aplikatuko zaizkion arauak.

296 ereduaren xede diren errentak sortu dituen ondare elementu, ondasun edo eskubide batek titular diren hartzaile batzuk baditu, zergapekoek ondare elementu, ondasun edo eskubideen titular bakoitzaren datu ekonomikoak bereizita adierazi behar dituzte ereduan, informazioa emateko ez beste ezertarako. Bereizketa titular bakoitzak ondare elementuan, ondasunean edo eskubidean daukan partaidetza proportzioaren arabera egingo da, aitortzaileak modu sinesgarrian jasotako partaidetza aplikatuz. Partaidetzen berri fidagarririk ez badauka, titulartasuna hainbana egotziko zaie aurrean aipatutako datuak ematean.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Herrialdeen eta lurraldeen kodeen onarpena.

Foru agindu honen III. eranskineko herrialdeen eta lurraldeen kodeen zerrenda onartzen da.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren urtarrilaren 20ko 13/2009 Foru aginduaren IV. eranskineko herrialdeez edo lurraldeez egindako aipamenak foru agindu honen III. eranskinekoez egintzat hartu behar dira.

Bigarrena. Ez-egoiliarren kontuei buruzko informazioa.

Foru agindu honen zazpigarren apartatuan ezartzen den urteko aitorpena (296 eredua) aurkeztu beharraren salbuespena gorabehera, Espainiako Bankuak edo atzerriekiko transakzio ekonomikoei buruzko arauetan aipatutako entitate erregistratuek Zerga Administrazioari eman behar diote berak zehazten dituen ez-egoiliarren kontuei buruzko informazioa.

Xedapen indargabetzaile bakarra

1. Foru agindu hau indarrean jartzen denean indargabetuta geratuko da urtarrilaren 20ko 13/2009 Foru Agindua, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako kargapeko errentak direla-eta egindako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena egiteko erabili beharreko 296 eredua eta beraren barruko orriak ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriez ordezkatzeko behar diren diseinu fisikoak eta logikoak.

2. Foru Agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, indargabetu egingo dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren urtarrilaren 20ko 13/2009 Foru Aginduak onetsitako herrialde eta lurraldeen kodeak.

Azken xedapenA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Foru agindu honen bidez onartutako ereduak eta diseinu fisikoak eta logikoak 2021eko atxikipenen eta konturako sarreren aitorpena egiteko erabiliko dira lehenengoz.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 20a

*Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun*
*Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*
*ITZIAR GONZALO DE ZUAZO*

*Ogasun zuzendaria*
*MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

# Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga

**Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak**

**ATXIKIPENEN / KONTURAKO DIRU SARREREN URTEKO LABURPENA**

# Impuesto sobre la renta de No Residentes

No residentes sin establecimiento permanente

RESUMEN ANUAL DE RETENCIONES / INGRESOS A CUENTA

# 296

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila**

**Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos**

## 1 IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN

**IDENTIFIKAZIO TXARTELA JARTZEKO LEKUA**
ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA

**IFZ** ■ NIF

**Izena edo sozietatearen izena** ■ Denominación o razón social

## 2 SORTZAPENA / DEVENGO

**Ekitaldia**
Ejercicio

901
**Ordezko aitorpena**
Declaración sustitutiva ........ 1
**Aitorpen osagarria**
Declaración complementaria ........ 2

**Aitorpenaren identifikazio zenbakia**
Número identificativo declaración

296

## 3 HARREMANETARAKO PERTSONA ■ PERSONA DE CONTACTO

| **Deiturak eta izena** ■ Apellidos y nombre | **Telefonoa** ■ Teléfono | **E-maila** ■ E-mail |
|---|---|---|
| | | |

## 4 AITORPENEAN JARRITAKO DATUEN LABURPENA ■ RESUMEN DE LOS DATOS INCLUIDOS EN LA DECLARACIÓN

| | | |
|---|---|---|
| **Errenta hartzaileen kopurua, guztira**<br>Número total de perceptores | 01 | |
| **Atxikipenen eta konturako diru sarreren oinarria**<br>Base de retenciones e ingresos a cuenta | 02 | |
| **Atxikipenak eta konturako diru sarrerak**<br>Retenciones e ingresos a cuenta | 03 | |
| **Sartutako atxikipenak eta konturako diru sarrerak**<br>Retenciones e ingresos a cuenta ingresados | 04 | |

**ORDEZKOA/OSAGARRIA**
SUSTITITVA
COMPLEMENTARIA

**Autolikadazio ordezkoa edo osagarria bada, idatzi hemen aurreko aitorpenaren identifikazio zenbakia:**

En caso de autoliquidación sustitutiva o complementaria, consigne a continuación N.º identificativo de la declaración anterior:

296

## 5

**Zigilua eta izenpea**
Fecha y firma

## 6

**Zigilua eta sarrera erregistroa**
Sello y registro de entrada

RE. 21/351

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

**Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga**
Impuesto sobre la renta de No Residentes

**296**

**JARRAIPENAK** ■ INSTRUCCIONES

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila**

**Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos**

## Azalpen Orokorra

Jarraibide hauetan Zergaren Foru Araua aipatzen denean ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauaz ari gara (ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena).

### 296 eredua aurkeztu behar dutenak

296 eredua honako hauek aurkeztu behar dute: ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren legezko arauetan ezarritakoarekin bat etorriz zerga horren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten gainean zerga hori dela eta atxikipenak edo konturako diru sarrerak egin behar dituzten pertsona fisikoek, juridikoek eta gainerako entitateek. Horretatik salbu daude inbertsio kolektiboko entitateen kapitalaren edo ondarearen akzioak edo partaidetzak eskualdatzen edo itzultzen direnean atxikipena edo konturako diru sarrera egin behar duten pertsonak, zenbait loteria eta apustutako sarien gaineko atxikipena edo konturako diru sarrera egin behar dutenak, eta 21/2014 Foru Arauak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenak, 25. artikuluko 2. zenbakian aipatzen duen atxikipena egin behar dutenak establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei ondasun higiezina erosiz gero, urteko laburpenaren eredu berezia baitute.

21/2014 FAko 31. artikuluak xedatzen duenaren arabera, honako hauek dira:

a) Egoitza Espainiako lurraldean daukaten entitateak, errentak esleitzeko araubidean daudenak barne.
b) Egoitza Espainiako lurraldean dutela jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoak, baldin eta jarduera horretan errentari ordaintzen badute.
c) Establezimendu iraunkorraren bitartez jarduten duten EEEZren zergadunak.
d) Establezimendu iraunkorrik gabe jarduten duten EEEZren zergadunak honako etekin hauek direla eta: ordaintzen dituzten lanaren etekinak; atxikipena aplikatu beharreko beste etekin batzuk, hain zuzen ere gastu kengarriak direnak iturri jakin batzuetako errentak lortzeko (iturriak: zerbitzu prestazioak, laguntza teknikoa, ingeniaritza kontratuen ondoriozko instalazio edo muntaketa obrak, eta, oro har, jarduera edo ustiapen ekonomikoak).
e) Finantza aktiboen gaineko eragiketetan eta Estatuaren zorraren baloreen eskualdaketetan, PFEZen araudiaren arabera atxikipena egin behar duten subjektuak.
f) Sarien kasuan, saria ordaintzen duen pertsona edo erakundea.

Gainera, Espainian helbidea, egoitza edo ordezkaritza duten entitateek ere 296 eredua aurkeztu behar dute honako bi kasu hauetan: besteren kontura ordaintzen badituzte atxikipena edo konturako diru sarrera aplikatu beharreko errentak; atxikipena edo konturako diru sarrera aplikatu beharra sortzen duten baloreen gordailuzainak badira edo haien errenten kobrantza kudeatzen badute.

### 296 ereduan jaso beharreko errentak

296 ereduan honako errenta hauek aitortu behar dira, nolakoak diren gorabehera: ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituzten

## Cuestiones Generales

Las referencias a la Norma Foral del Impuesto contenidas en las presentes instrucciones, se entienden efectuadas a la Norma Foral 21/2014, de 18 de junio, del Impuesto sobre la Renta de No Residentes.

### Obligados a presentar el modelo 296

Están obligados a presentar el modelo 296 todas aquellas personas físicas, jurídicas y demás entidades, que están obligadas a retener o a ingresar a cuenta por el Impuesto sobre la Renta de No Residentes, respecto de las rentas obtenidas por contribuyentes del mismo, sin mediación de establecimiento permanente, de conformidad con lo establecido en la normativa legal y reglamentaria reguladora de este impuesto, salvo las personas obligadas a retener en las transmisiones o reembolsos de acciones o participaciones representativas del capital o patrimonio de las instituciones de inversión colectiva, los obligados a retener o a ingresar a cuenta sobre los premios de determinadas loterías y apuestas, y los obligados a practicar retención a que se refiere el apartado 2 del artículo 25 de la Norma Foral 21/2014, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, en la adquisición de bienes inmuebles a no residentes sin establecimiento permanente, que presentarán su resumen anual en un modelo específico.

Dichos sujetos de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 31 de la NF 21/2014, son los siguientes:

a) Las entidades, incluidas las entidades en régimen de atribución de rentas residentes en territorio español.
b) Las personas físicas residentes en territorio español que realicen actividades económicas cuando satisfagan o abonen dichas rentas en el ejercicio de su actividad.
c) Los contribuyentes del IRNR mediante establecimiento permanente.
d) Los contribuyentes del IRNR sin Establecimiento Permanente respecto de los rendimientos de trabajo que satisfagan así como respecto de otros rendimientos sometidos a retención que constituyan gasto deducible para la obtención de rentas derivadas de prestaciones de servicios, asistencia técnica, obras de instalación o montaje derivadas de contratos de ingeniería y, en general, de actividades o explotaciones económicas.
e) En las operaciones sobre activos financieros y en las transmisiones de valores de la Deuda del Estado, los sujetos obligados a retener de acuerdo con la normativa del IRPF.
f) En el caso de premios, la persona o entidad que los satisfaga.

Asimismo, se encuentran también obligadas a presentar el modelo 296 las entidades domiciliadas, residentes o representadas en España, que paguen por cuenta ajena rentas sujetas a retención o ingreso a cuenta o que sean depositarias o gestionen el cobro de las rentas de valores que originen la sujeción a retención o ingreso a cuenta.

### Rentas que deben incluirse en el modelo 296

En el modelo 296 deben incluirse, con independencia de su naturaleza, las rentas obtenidas por contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, sin establecimiento perma-

RE. 21/353

1



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

errentak, aitortzaileak atxikipena edo konturako diru sarrera aplikatu beharrekoak edo, Zergaren Foru Arauak 31. artikuluko 4. idatz zatian xedatzen duenarekin bat etorriz, zergadunak edo beraren ordezkariak zerga ordaindu duela frogatu dela eta edo salbuespen bat aplikatu behar dela eta, ez atxikipenik ez konturako diru sarrerarik aplikatu beharrik egon ez den errentak.

Errenta hauek ez dira sartu behar:

1. 21/2014 Foru Arauak 14. artikuluan ezartzen duenaren arabera edo zergapetze bikoitza saihesteko aplikatu beharreko hitzarmen baten arabera salbuetsita dauden errentak. Hori gorabehera, atxikipena edo konturako diru sarrera aplikatu behar-ko zaie 21/2014 Foru Arauko 14. artikuluko 1. Idatz zatiko m) eta n) letretan aipatzen diren errentei.
2. Establezimendu iraunkorrik ez duten zerga honen zergadunei ordaindutako errentak, baldin eta frogatzen bada zerga ordaindu dela edo errenta salbuetsita dagoela.
3. Sozietateen gaineko zergaren 37/2013 Foru Arauko hamalaugarren xedapen gehigarriko 4. Idatz zatiko c) letran aipatzen diren errentak.
4. Ondare irabaziak, hauek izan ezik:
   - Jokoetan, lehiaketetan, zozketetan edota ausazko konbinazioetan parte hartuta lortzen diren sariak, ondasun, produktu edo zerbitzu jakin batzuen eskaintzari, sustapenari edo salmentari lotuta egotea gorabehera.
   - Araban dauden ondasun higiezinen eskualdaketa.
   - Inbertsio kolektiboko entitateen kapitalaren edo ondarearen akzioak edo partaidetzak eskualdatuta edo itzulita lortzen diren errentak, Inbertsio kolektiboko entitateen azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Arautegiko 79. artikuluan arautzen diren funtsetako eta sozietateetako partaidetzak edo akzioak itzulita edo eskualdatuta lortzen direnak izan ezik.
5. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Arautegiko 78. artikuluko b), c), f) , g) eta i) letretan aipatzen diren errentak; b) letran aipatzen direnetako batzuk aurrean esandakotik salbuetsita daude, hain zuzen ere arau bidez zerga paradisutzat jotzen diren herrialde edo lurraldeen bidez lortzen diren errentak.

Aurrekoa gorabehera, atxikipena edo konturako diru sarrera egin beharko da kapital soziala murriztu eta ekarpenak itzultzen direnean eta akzio jaulkipeneko prima banatzen denean, 439/2007 Errege Dekretuak onartzen duen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Arautegiko 75. artikuluko 3. zenbakiko h) letrako bigarren paragrafoan ezartzen den bezala.

Aurrean aipatutako zergapekoek 216 eredua erabiliko dute 21/2014 Foru Arauak 31. artikuluko 4. Idatz zatian xedatzen duenaren arabera ez atxikipenik ez konturako diru sarrerarik egin behar ez den kasuetan.

Hala ere, aurreko paragrafoan xedatzen denari dagokionez, errenta hauek ez dira kontuan hartuko:

1. Zergaren Foru Arauko 14.1.a) artikuluan aipatzen diren errentak.
2. Egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo entitateek establezimendu iraunkorrik gabe Espainian jaulkitako baloreek sortutako errentak, kontuan hartu gabe non dagoen dena dela ordainketan agente gisa diharduen edo baloreen jaulkipenean edo eskualdaketan bitartekari gisa aritzen den finantza entitatearen egoitza.
3. Ez-egoiliarren kontuen etekinak, Espainiako Bankuak edo atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araudian aipatzen diren entitate erregistratuek Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik ez duten zerga honen zergadunei ordaintzen dizkietenak.
4. Estatuaren eta autonomia erkidegoen idazpenetako zorraren interesak, ordaintzeko edo atxikipenak itzultzeko prozedura berezia aplikatzen zaienak.
5. Zergaren Arautegiko 14. artikuluko 3. zenbakiko b) eta c) letretan aipatzen diren errentak, atxikipena eta konturako diru sarrera egin beharretik salbuetsita daudenak.
6. Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauko hamalaugarren xedapen gehigarriko 4. idatz zatiko c) letran aipatzen diren errentak.

nente, respecto de las que el declarante tenga la obligación de efectuar retención o ingreso a cuenta, o respecto de las que no se hubiese practicado retención o ingreso a cuenta, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 31 de la Norma Foral del Impuesto, por haberse acreditado el previo pago del impuesto por parte del contribuyente o su representante, o la procedencia de alguna exención.

No se incluirán las rentas siguientes:

1. Las rentas que estén exentas en virtud de lo establecido en el artículo 14 de la NF 21/2014 o en un Convenio para evitar la Doble Imposición que resulte aplicable. No obstante lo anterior, sí existirá obligación de practicar retención o ingreso a cuenta respecto de las rentas a las que se refieren las letras m) y n) del apartado 1 del artículo 14 de la NF 21/2014.
2. Las rentas satisfechas o abonadas a contribuyentes por este impuesto sin establecimiento permanente, cuando se acredite el pago del impuesto o la procedencia de la exención.
3. Las rentas a que se refiere la letra c) del apartado 4 de la disposición adicional decimocuarta de la NF 37/2013, del Impuesto sobre Sociedades.
4. Las ganancias patrimoniales con excepción de:
   - Los premios derivados de la participación en juegos, concursos, rifas o combinaciones aleatorias estén o no vinculados a la oferta, promoción o venta de determinados bienes, productos o servicios.
   - La transmisión de bienes inmuebles situados en Álava.
   - Las rentas derivadas de transmisiones o reembolsos de acciones o participaciones representativas del capital o patrimonio de las instituciones de inversión colectiva, excepto las procedentes de participaciones o acciones en los fondos y sociedades regulados por el artículo 79 del Reglamento de la Ley 35/2003, de 4 de noviembre, de instituciones de inversión colectiva.
5. Las rentas recogidas en las letras b), salvo las obtenidas a través de países o territorios calificados reglamentariamente como paraísos fiscales, c), f), g) e i) del artículo 78 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

No obstante lo anterior, existirá obligación de retener o ingresar a cuenta en los supuestos de reducción de capital social con devolución de aportaciones y distribución de la prima de emisión de acciones previstos en el segundo párrafo de la letra h) del apartado 3 del artículo 75 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Real Decreto 439/2007.

El modelo 296 se utilizará por los obligados tributarios citados anteriormente en los casos en que de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 31 de la NF 21/2014 no proceda practicar retención o ingreso a cuenta.

No obstante, no se tendrán en cuenta, a efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, las siguientes rentas:

1. Las rentas a que se refiere el artículo 14.1.a) de la Norma Foral del Impuesto.
2. Las rentas derivadas de valores emitidos en España por personas físicas o entidades no residentes sin mediación de establecimiento permanente, cualquiera que sea el lugar de residencia de las instituciones financieras que actúen como agentes de pago o medien en la emisión o transmisión de los valores.
3. Los rendimientos de las cuentas de no residentes que se satisfagan a contribuyentes por este Impuesto, sin establecimiento permanente situado en territorio español, por el Banco de España o por las entidades registradas a que se refiere la normativa de transacciones económicas con el exterior.
4. Los intereses de la Deuda del Estado y de las Comunidades Autónomas en Anotaciones, sujetos a un procedimiento especial de pago de los mismos o de devolución de retenciones.
5. Las rentas exceptuadas de la obligación de retener y de ingresar a cuenta enumeradas en las letras b) y c) del apartado 3 del artículo 14 del Reglamento del Impuesto.
6. Las rentas a que se refiere la letra c) del apartado 4 de la disposición adicional decimocuarta de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades.





L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## Dokumentazioa

1. Urteko laburpena aurkeztu behar dutenek Zerga Administrazioaren eskura eduki behar dute egindako atxikipenak frogatzen dituen dokumentazioa otsailaren 28ko Foru Arau Orokorrak, zergenak, 69. artikuluan aipatzen duen preskripzio aldian.

2. Horri dagokionez, Espainiako arautegiko salbuespenak aplikatuz atxikipenik egin ez bada, zergadunaren egoitza non dagoen kontuan hartuta, egoitza dagoen estatuko zerga agintaritzak emandako egoitza ziurtagiria aurkeztu behar da froga-agiri modura.

   Espainiak zergapetze bikoitzaren aurka sinatutako hitzarmen bateko xedapenak aplikatuz atxikipenik egin ez bada, edo bertan ezarritako mugekin egin bada, zerga agintaritza egokiak emandako zerga egoitzaren ziurtagiria aurkeztu behar da horretarako eskubidea frogatzeko, eta bertan zergaduna egoiliarra dela agertu behar da, hitzarmenean zehaztuta dagoen bezala. Hala ere, formulario zehatz baten erabilera xedatzen duen agindu baten bidez garatutako hitzarmen batean finkatutako ezarpen muga aplikatuz egin bada atxikipena, ziurtagiria gabe formularioa bera aurkeztu behar da froga-agiri gisa.

   Aurreko paragrafoetan aipatutako ziurtagirien balioaldia urtebetekoa izango da ematen direnetik.

   Atxikipenik egin ez bada Zerga ordaindu dela eta, ordainketa frogatzeko errenta horri dagokion zerga aitorpena aurkeztu behar du zergadunak edo beraren ordezkariak.

## Documentación

1. Los obligados a la presentación del resumen anual conservarán a disposición de la Administración Tributaria, durante el plazo de prescripción a que se refiere el artículo 69 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero General Tributaria, la documentación que justifique las retenciones practicadas.
2. A estos efectos, cuando no se practique la retención por aplicación de las exenciones de la normativa interna española, por razón de la residencia del contribuyente, se justificará con un certificado de residencia, expedido por las autoridades fiscales del país de residencia.

   Cuando no se practique la retención por aplicación de las exenciones de un Convenio para evitar la doble imposición suscrito por España o se practique con los límites de imposición fijados en el mismo, se justificará con un certificado de residencia fiscal expedido por la autoridad fiscal correspondiente, en el que deberá constar expresamente que el contribuyente es residente en el sentido definido en el Convenio. No obstante, cuando se practique la retención aplicando un límite de imposición fijado en un Convenio desarrollado mediante una Orden en la que se establezca la utilización de un formulario específico, se justificará con el mismo en lugar del certificado.

   Los certificados de residencia a que se refieren los párrafos anteriores, tendrán un plazo de validez de un año a partir de la fecha de su expedición.

   Cuando no se practique retención por haberse efectuado el pago del impuesto, se acreditará mediante la declaración del impuesto correspondiente a dicha renta presentada por el contribuyente o su representante.

## Non eta noiz aurkeztu behar den 296 eredua

296 eredua modu telematikoan baino ez da aurkeztuko Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (www.araba.eus), urtarrilean, aurreko urteari dagozkion atxikitako zenbatekoei eta konturako sarrerei dagokienez, ekitaldi bakoitzeko egutegi fiskalean ezarritako datekin bat etorriz.

## Plazo y lugar de presentación del modelo 296

La presentación del Modelo 296 se efectuará exclusivamente de forma telemática en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Álava (www.araba.eus), durante el mes de enero de cada año, en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta que correspondan al año inmediato anterior, de acuerdo con las fechas establecidas en el calendario fiscal de cada ejercicio.

3

## Laburpen orria

**SORTZAPENA**

**Ekitaldia:** Aitorpenaren urtearen lau zifrak idatzi behar dira.

**Aitorpen osagarria**: Aitorpenaren xedea lehenago aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean agertu behar izan arren bertan oso-osorik jarri gabe geratu ziren jasotako kopuruak aitortzea bada, lauki honetan "X" ipini behar da. Honelako aitorpenetan aurretik aitortu gabe utzitako kopuruak baino ez dira sartu behar.

**Ordezko aitorpena:** Aitorpenaren xedea aurreko beste aitorpen bat, okerreko datuak eduki dituena, osorik deuseztatzea eta ordeztea bada, lauki honetan "X" ipini behar da.

**Aitorpenaren identifikazio zenbakia:** Aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da. Zenbaki sekuentziala izan behar da; lehenengo hiru digituak 296 izan behar dira (ereduaren kodea).

**HARREMANETARAKO PERTSONA**

Harremanetarako pertsonaren datuak jarri behar dira.

**AITORPENEAN JARRITAKO DATUEN LABURPENA**

Atal honetako laukietan barruko orrietan (edo euskarrian) adierazitako datuen laburpena egin behar da, ondoren zehaztuko den bezala:

[01] laukia. **Hartzaileak, guztira.** Barruko orri guztietan (edo euskarrian) bildutako hartzaileen (erregistroen) guztirako kopurua zehaztu behar da. Hartzaile bat erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, agertzen den beste aldiz konputatu behar da.

[02] laukia. **Atxikipenen eta konturako diru sarreren oinarria**. Barruko orri guztietako (edo euskarriko) "Atxikipenen eta konturako diru sarreren oinarria" laukian ezarritako kopuruen guztirako batura adierazi behar da.

[03] laukia. **Atxikipenak eta konturako diru sarrerak**. Barruko orri guztietako (edo euskarriko) "Atxikipenak eta konturako diru sarrerak" laukian ezarritako kopuruen guztirako batura adierazi behar da.

[04] laukia. **Sartutako atxikipenak eta konturako diru sarrerak**. Barruko orri guztietako (edo euskarriko) hartzaileen (erregistroak) "Atxikipenak eta konturako diru sarrerak" laukiko kopuruetatik "Gakoa" laukian 3 – 25 zenbakietako bat duten hartzaileei eta lauki horretan 1 edo 2 jarrita dutela "Ordainketa" laukian 1 duten hartzaileei dagozkien guztiak batu behar dira.

## Hoja-Resumen

**DEVENGO**

**Ejercicio:** Se consignarán las cuatro cifras del año al que corresponda la declaración.

**Declaración complementaria**: Se consignará una "X" en esta casilla cuando la presentación de la declaración tenga por objeto incluir percepciones que, debiendo haber sido incluidas en otra declaración del mismo ejercicio presentada con anterioridad, hubieran sido completamente omitidas en la misma. En la declaración complementaria solamente se incluirán las percepciones omitidas que motivan su presentación.

**Declaración sustitutiva**: Se consignará una "X" en esta casilla cuando la presentación de la declaración tenga por objeto anular y sustituir completamente a otra declaración anterior en la cual se hubieran incluido datos inexactos o erróneos.

**Número identificativo de la declaración**: Se consignará el número identificativo correspondiente a la declaración. El número identificativo que habrá de figurar, será un número secuencial cuyos tres primeros dígitos se correspondan con el código 296.

**PERSONA DE CONTACTO**

Se consignarán los datos que se especifican de la persona de contacto.

**RESUMEN DE LOS DATOS INCLUIDOS EN LA DECLARACION**

En las diferentes casillas de este apartado se hará constar el resumen de los datos consignados en las hojas interiores (o en el soporte), con arreglo a la siguiente distribución:

Casilla [01] **Número total de perceptores**. Consigne el número total de perceptores (registros) relacionados en todas las hojas interiores (o en el soporte), Si un mismo perceptor figura en varios registros, se computará tantas veces como figure relacionado.

Casilla [02] **Base retenciones e ingresos a cuenta**. Consigne la suma total de las cantidades reflejadas en la casilla "Base retenciones e ingresos a cuenta" de todas las hojas interiores (o del soporte).

Casilla [03] **Retenciones e ingresos a cuenta**. Consigne la suma total de las cantidades reflejadas en la casilla "Retenciones e ingresos a cuenta" de todas las hojas interiores (o del soporte).

Casilla [04] **Retenciones e ingresos a cuenta ingresados**. Consigne la suma total de las cantidades reflejadas en la casilla "Retenciones e ingresos a cuenta" de todas las hojas interiores (o del soporte) que correspondan a perceptores (registros) en los que haya consignado en la casilla "Clave" los números 3 a 25, así como también aquéllos en los que haya consignado en la casilla "Clave" los números 1 o 2 y, simultáneamente, en la casilla "Pago" un 1.

## Barruko orriak

**AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK**

**"Aitortzailearen IFZ"** laukian aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) idatzi behar da.

**"Ekitaldia"** laukian aitorpenaren urte naturalaren lau zifrak idatzi behar dira.

**"Orrialde zk.a"** laukia edo eremua: berez beteko da inprimatzean.

**HARTZAILEAREN DATUAK**

**"Hartzailearen IFZ"**: Hartzaile bakoitzaren IFZ jarri behar da. Hartzailea errentak esleitzeko araubidean dagoen entitatea bada (ondasun erkidegoa, sozietate zibila, jaso gabeko jaraunspena, eta abar), beraren IFZ jarri behar da. Hartzailea IFZrik ez daukan adingabea bada, ez da bete behar lauki hau baizik eta "Ordezkariaren IFZ" laukia, jarraibide hauetan azaltzen den bezala.

**"Ordezkariaren IFZ"**: Lauki hau aitortua IFZrik ez daukan adingabea izanez gero soilik bete behar da; beraren legezko ordezkariaren IFZ jarri behar da (aitarena, amarena edo tutorearena).

## Hojas interiores

**DATOS IDENTIFICATIVOS DEL DECLARANTE**

Casilla **"NIF del declarante"** se hará constar el número de identificación fiscal (NIF) del declarante.

Casilla **"Ejercicio"** se anotarán las cuatro cifras del año natural al que corresponda la declaración.

Casilla **"Hoja nº"** se autorrellenará en la impresión.

**DATOS COMUNES A TODOS LOS PERCEPTORES**

Casilla **"NIF perceptor"**: Se consignará el número de cada perceptor. Si el perceptor es una entidad en régimen de atribución de rentas (comunidad de bienes, sociedad civil, herencia yacente, etc.) se consignará el NIF correspondiente a la misma. Tratándose de perceptores menores de edad carentes de NIF, no deberá ser objeto de cumplimentación esta casilla, debiendo cumplimentarse la casilla "NIF del representante", según lo dispuesto en estas instrucciones para la misma.

**Casilla "NIF Representante"**: esta casilla se cumplimentará exclusivamente cuando el declarado sea menor de edad que carezca de NIF propio, debiendo consignarse en la misma el de su representante legal (padre, madre, o tutor).

4

**"F/J"**: Hartzailea pertsona fisikoa bada, "F" ipini behar da; aldiz, pertsona juridikoa edo entitatea bada, "J".

**"Deiturak eta izena edo entitatearen izena"** laukia:

a) Pertsona fisikoa bada, honela idatzi behar dira izen-abizenak: lehenengo abizena, gero bigarrena eta azkenik izen osoa, hurrenkera honexetan nahitaez. Adingabea bada, beraren izen-deiturak idatzi behar dira lauki honetan.

b) Pertsona juridikoa edo errentak esleitzeko araubidean dagoen entitatea bada, sozietatearen edo entitatearen izen osoa idatzi behar da, anagramarik gabe.

**"Sortzapenaren data"**: Errenta noiz sortu den zehaztu behar da (eguna/hila/urtea). 2020ko urriaren 25ean sortutako errenta: 25/10/2020.

**"Izaera"**: Errenta nolakoa den (diruzkoa ala gauzazkoa) adierazten duen gakoa jarri behar da:

D. Diruzko errenta.
E. Gauzazko errenta.

**"Gakoa"**: Errenta motari dagokion gakoa jarri behar da; hona gakoen zerrenda:

**1** Entitateen funts propioen partaidetzen dibidenduak eta bestelako errentak.
**2** Norberaren kapitalak hirugarrenei lagata lortutako interesak eta bestelako errentak.
**3** Patenteen, fabrika edo merkataritza marken, marrazkien edo ereduen, planoen, formulen edo prozedura sekretuen ondoriozko kanonak.
**4** Obra literarioen eta artelanen gaineko eskubideen ondoriozko kanonak.
**5** Obra zientifikoen gaineko eskubideen ondoriozko kanonak.
**6** Film zinematografikoen eta grabatutako entzun zein ikusizko obren gaineko eskubideen ondoriozko kanonak.
**7** Industriako, merkataritzako edo zientzien arloko esperientziei buruzko informazioaren ondoriozko kanonak (know-how).
**8** Programa informatikoen gaineko eskubideen ondoriozko kanonak.
**9** Laga daitezkeen eskubide pertsonalen (irudi eskubideak, esaterako) ondoriozko kanonak.
**10** Ekipo industrialen, merkataritzakoen eta zientifikoen ondoriozko kanonak.
**11** Aurrean adierazi gabeko kanonak.
**12** Kapitalizazio eragiketen eta bizitza edo elbarritasun aseguruen kontratuen ondoriozko kapital higigarriaren etekinak.
**13** Kapital higigarriaren beste etekin batzuk, aurrean aipatu ez direnak.
**14** Ondasun higiezinen etekinak.
**15** Enpresa jardueren errentak.
**16** Laguntza teknikoaren ondoriozko errentak.
**17** Arte jardueren errentak.
**18** Kirol jardueren errentak.
**19** Lanbide jardueren errentak.
**20** Lanaren errentak.
**21** Pentsioak eta hartzeko pasiboak.
**22** Administratzaileen eta administrazio kontseiluetako kideen ordainsariak.
**23** Berraseguru eragiketen etekinak.
**24** Itsas edo aire nabigazioko entitateak.
**25** Beste errenta batzuk.

**"Azpigakoa"**: Atxikipena edo konturako diru sarrera kalkulatzeko kontuan hartutako inguruabarrei dagokien azpigakoa hautatu behar da; hona zerrenda:

**01** Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Foru Arauko 25. artikuluko tasa orokorretan edo zerga eskaletan egindako atxikipena.
**02** Hitzarmen bateko zergapetze mugak aplikatuz egindako atxikipena.
**03** Barne salbuespena (nagusiki: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 14. artikulua), 12. azpigakoan aipatzen diren kasuak izan ezik.
**04** Hitzarmen baten ondoriozko salbuespena.
**05** Atxikipenik ez, zergadunak edo beraren ordezkariak zerga aldez aurretik ordaindu duelako.

Casilla **"F/J"**: Se hará constar una "F" si el perceptor es una persona física y una "J" si se trata de una persona jurídica o entidad.

Casilla **"Apellidos y nombre, razón social o denominación"**:

a) Para personas físicas, se consignará el primer apellido, el segundo apellido y el nombre completo, en este mismo orden. Si el declarado es un menor de edad, se consignarán en esta casilla los apellidos y nombre del menor de edad.

b) Para personas jurídicas y entidades en régimen de atribución de rentas, se consignará la razón social o la denominación completa de la entidad, sin anagramas.

Casilla **"Fecha de devengo"**: se consignará la fecha en que se ha devengado la renta (día/mes/año). Una renta devengada el día 25 de octubre del 2020: 25/10/2020.

Casilla **"Naturaleza"**: Se consignará la clave que corresponda en función de la naturaleza, dineraria o en especie, de la renta según lo siguiente:

D. Renta dineraria.
E. Renta en especie.

Casilla **"Clave"**: se consignará la clave que corresponda en función del tipo de renta, según la relación de claves numéricas siguientes:

**1** Dividendos y otras rentas derivadas de participación en fondos propios de entidades.
**2** Intereses y otras rentas derivadas de la cesión a terceros de capitales propios.
**3** Cánones derivados de patentes, marcas de fábrica o de comercio, dibujos o modelos, planos, fórmulas o procedimientos secretos.
**4** Cánones derivados de derechos sobre obras literarias y artísticas.
**5** Cánones derivados de derechos sobre obras científicas.
**6** Cánones derivados de derechos sobre películas cinematográficas y obras sonoras o visuales grabadas.
**7** Cánones derivados de informaciones relativas a experiencias industriales, comerciales o científicas (know-how).
**8** Cánones derivados de derechos sobre programas informáticos
**9** Cánones derivados de derechos personales susceptibles de cesión, tales como los derechos de imagen
**10** Cánones derivados de equipos industriales, comerciales o científicos.
**11** Otros cánones no relacionados anteriormente.
**12** Rendimientos de capital mobiliario de operaciones de capitalización y de contratos de seguros de vida o invalidez.
**13** Otros rendimientos de capital mobiliario no citados anteriormente.
**14** Rendimientos de bienes inmuebles.
**15** Rentas de actividades empresariales.
**16** Rentas derivadas de prestaciones de asistencia técnica.
**17** Rentas de actividades artísticas.
**18** Rentas de actividades deportivas.
**19** Rentas de actividades profesionales.
**20** Rentas del trabajo.
**21** Pensiones y haberes pasivos.
**22** Retribuciones de administradores y miembros de consejos de administración.
**23** Rendimientos derivados de operaciones de reaseguros.
**24** Entidades de navegación marítima o aérea.
**25** Otras rentas

Casilla **"Subclave"**: Se consignará la que corresponda en función de las circunstancias tenidas en cuenta para el cálculo de la retención o ingreso a cuenta, según la relación siguiente:

**01** Retención practicada a los tipos generales o escalas de tributación del artículo 25 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.
**02** Retención practicada aplicando límites de imposición de convenios.
**03** Exención interna (principalmente: artículo 14 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de no Residentes) excepto los supuestos a que se refiere la subclave 12.
**04** Exención por aplicación de un convenio.
**05** Sin retención por previo pago del impuesto por el contribuyente o su representante.

5



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**06** Aitorpeneko hartzailea jabetza intelektualaren gaineko eskubideak multzoan kudeatzen dituen atzerriko entitatea da eta atxikipena hitzarmen bateko zergapetze muga edo salbuespena aplikatuta egin da.

**08** Aitorpeneko hartzailea Espainiako inbertsio kolektiboko entitateen akzioak edo partaidetzak merkaturatzen dituen atzerriko entitatea da eta atxikipena hitzarmen bateko zergapetze muga (Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Foru Arauko 25. artikuluan ezarritakoa baino txikiagoa) aplikatuta egin da, araudian ezarritako prozedura bereziarekin bat etorriz.

**09** Aitorpeneko hartzailea Espainiako inbertsio kolektiboko entitateen akzioak edo partaidetzak merkaturatzen dituen atzerriko entitatea da eta atxikipena Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Foru Arauko 25. artikuluan ezarritako karga tasa aplikatuta egin da, araudian ezarritako prozedura bereziarekin bat etorriz.

**10** Konturako diru sarrera, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Foru Arauko 36.2 artikuluan aipatzen direnetakoa, errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate batek egina egoiliar ez den kide bati esleitutako errentari dagokionez.

**11** Hartzaile aitortua da zergadun bat ordaintzaileari egiaztatu diona ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren foru arauaren 32. artikuluak jasoriko prozedura erabili duela.

**12** Dietak eta bidaia gastuetarako kopuruak, salbu eta kargatik salbuetsita daudenak (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiaren 13. artikulua).

Aurreko zerrendako 06, 08, 09, 10 eta 11 zenbakietan azaldutako kasuetan berariazko azpigako hauek ezarri behar dira nahitaez, gainerakoak aintzat hartu gabe.

**“Atxikipenen eta konturako diru sarreren oinarria”**: Egin beharreko atxikipenaren edo konturako diru sarreraren kopurua kalkulatzeko oinarria Zergaren Arautegiko 17. artikuluan ezartzen da. Oinarri hau zerga oinarria bera izan behar da, hau da, 21/2014 Foru Arauak 24. artikuluan ezartzen duenaren arabera kalkulatutako zerga oinarria (arau horretako 24.2 eta 33.7 artikuluetan aipatzen diren gastu kengarriak zenbatu gabe).

**“Atxikipen %”**: Kasu bakoitzean aplikatutako atxikipenaren edo konturako diru sarreraren ehunekoa jarri behar da. Atxikipenaren ehunekoa 21/2014 Foru Arauak 25. artikuluan ezartzen duen karga tasa izango da, errenta motaren arabera edo, zergapetze bikoitzaren aurkako hitzarmenen bat aplikatzen bada, bertan ezarritako zergapetze mugaren arabera. Ez atxikipenik ez konturako diru sarrerarik egin ez bada, edo errentak salbuetsita badaude barruko arauen arabera zein hitzarmena dela eta, lauki honetan % 0 jarri behar da. 25.1.b) artikuluko karga eskala aplikatu ahal zaien pentsioen kasuan, eskala hori pentsioaren urteko zenbatekoari aplikatzearen emaitzako batez besteko tasa jarri behar da.

**“Atxikipenak eta konturako diru sarrerak”**: “Atxikipenen eta konturako diru sarreren oinarria” laukian jarritako kopuruari “Atxikipen %” laukian jarritako atxikipen edo konturako diru sarreraren ehunekoa aplikatzearen emaitza jarri behar da.

**“Jasanarazitako konturako sarrerak”** laukia: "Izaera" laukian E balioa (gauzazko errenta) jaso bada eta "atxikipenak eta konturako sarrerak" laukia badu, gauzazko ordainsarien ordaintzaileak hartzaileari jasanarazi dizkion konturako sarreren zenbatekoa jasoko da lauki honetan.

**06** El perceptor declarado es una entidad extranjera de gestión colectiva de derechos de la propiedad intelectual, habiéndose practicado retención aplicando el límite de imposición, o la exención, de un Convenio.

